

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 237. alea - 2019ko otsaila



**Bitor Garitaonandia,  
olatuen artean dantzan**

**sasoi**ko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**50 URTE**

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trazoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín**  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

*Zuhatza*


**943 191 383**

berriketan@zuhatza.com



URDAITEGIA  
**AITTOLA**  
HARATEGIA

Asillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295



**AUKERA**  
INMOBILIARIA


www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



# AURKIBIDEA

5

## ALBISTEAK

Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebara deitu du martxoaren 8an

6

## KOLABORAZIOA

Debasket Saskibalo Kluba, "Herrikoak berriketan" atalean

8

## EUSKARA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu du Udalak; Martxan da Korrika Batzordea...

10

## ELKARRIZKETA

Bitor Garitaonandia: "Kentzen didana baino askoz gehiago ematen dit surfak"

17

## LITERATURA

Eneko Aizpurua idazle lazkaotarrak irabazi du XIII. Tene Mujika Beka



Ander Salegi



Ander Salegi



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatzza**  
euskara elkarteak deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatzza Euskara Elkarteak. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Ander Salegi

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Koldo Aperribai eta Terese Larrañaga

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Oztopodun pasabidea?

Urazamendik auzoko balkoietatik, Debako elizako erlojua ikus daiteke, baina inoiz baino urrutiago dago. Badira 7 hilabete auzo honetako bizilagunak isolatuta bizi garela. 2018ko uztailean 5ean, Debarekin lotzen duen zubia "erori" egin zen, 300 bat bizilagunek eskolara, medikuarengana joateko, erosketak egiteko..., hau da, eguneroko bizitza normala egiteko zeharkatzen duguna. Auzo honetan etxebizitzak besterik ez daude eta orain, eguneroko gauzak egiteko modu bakarra auto partikularretan, autobusean edo oinez (ordubeteko joan-etorria) egitea da.

Foru Aldundiak eta udaletxeek, pasabidea azarorako izango zela ziurtatu ziguten. 60 metro eskasek banatutako ibaiaren bi aldeak lotuko dituen pasabidea. Ejertzitoak beste ordezkari pasabide bat ere eskaini zuen, baina Foru Aldundiak eskaintza atzera bota zuen, arrazoiak garbi egon ez arren. Honen ordezkari, Foru Aldundiak irailean hasi zen proiektu bat proposatu zuen, zubia harriz harri berriz eraikitzen den bitartean, oinezkoak pasatzeko aukera eskaini-

ko duen pasabidea eraikitzea. Hau da, bi, helburu batean.

2019ko otsailean gaude jada eta proiektu honen egitura oraindik erdizka dago eta ez digute ziurtatzen auzotar guztiok bertatik pasatzerik izango dugunik, eskailera multzo bat jarri nahi baitigute alde batean eta bestean edota baita pasabidean bertan ere. Pasabidea 3 bat metroko altueran jarri nahi digute, ez arrapala, ez igogailurik,... Ezinduak ditugu auzoan, pertsona nagusiak, haurkotxeak, (300 pertsona, bakoitza bere egoerarekin)... pasabide hau zeharkatzeko oztopoak izango dituztenak. Diotenez, pare bat urte beharko dituzte zubia berriz eraikitzeko (orain artekoa ikusita baita 5 urte ere); horrek esan nahi du orain eraikitzen dena, amaitu artekoa izango dela.

Hainbeste kanpaina egiten dira arkitektura-oztopoak salatzeko eta hara non ez zeuden tokian jarri dizkiguten guri.

Administrazioak ez digu inongo argibiderik ematen eta auzotarrok eguneroko ikusten dugu gure leihoretatik nola ari diren lanean. Epeak ez dira betetzen



ari, auzotar guztientzat hitz eman zuten pasabidea ez dugu inolaz ere ikusten eta noski, Administrazioaren aldetik benetako abandonu eta arduragabetasun sententzia dago auzotarren artean. Ez zaigu iruditzen auzotarren egoerari esan zuten lehentasuna ematen ari zaionik.

Zubiaren konponketak duen zailtasuna ikusita, auzotarroi egunerokotasunera bueltatzea gero eta urrutiago dagoela iruditzen zaigu.

Kontuan izan behar dugu zubiaren konponketa asko luzatuko dela denboran. Horregatik eskatzen dugu behin-behineko konponbide DUN bat.

*Urazamendik auzoko bizilagunak,  
2019ko otsailaren 7an*

## Pablori

*Zure betiko lagunak  
zurekin egon garenak  
gogoan izango ditugu  
elkarrekin bizitakoak*

Ikastolan, hiru urterekin topatu genuen elkar, andereño Kontxita eta Garbiñeren eskutik, elkarrekin eman genituen lehenengo pausoak.

Kiroletan trebeak ez baginen ere, beti gogoratuko ditugu Euskal Herriko mendi gainetan eta hondartzako futbol partidetan igarotako momentu eta pasadizo ederrak.

Zer esanik ez, nerabezaroan, herriz herri, jairik jai eta Debako festetan, Urtxintxa bodegaren inguruan bizi izan genituen momentu zoragarriak.

Gaupasak, dozenaka, eta afariak, ehunka, mahai goxo baten aurrean mundua konpontzeko grinarekin.

*Lagun bat egitea grazia da,  
lagun bat izatea dohain ona,  
lagun bat mantentzea bertutea  
eta, Pablo, zure laguna izatea  
ohorea izan da.*

*Urtxintxa Kuadrilla*



## Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebara deitu du martxoaren 8an



“Martxoaren 8an, emakumeok, transok eta bollerok lan guztiak utziko ditugu, eta kaleak hartuko ditugu berriro ere”. Iaz bezala, aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunean ere grebara deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Aurten 24 ordukoa izango da lanuztea –eta ez ordu batzuetakoa, iaz egin zen bezalaxe–.

Grebaren nondik norakoak aurkezteko agerraldia egin zuen Mugimendu Feministak Gasteizen, urtarrilaren erdialdean. Bertan argitu bezala, “greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo eremuan, familia eraikitze moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun eremuan eta

zapalkuntza guztien aurrean. Greba feministarekin, hetero-patriarkatu-kapitalistari planto egingo diogu”. Emakumeak, bollerak eta transak egongo dira grebaren erdigunean, hau da, “heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektuak”.

Aurtengo deialdiak bost ardatzetan izango du oinarria: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da. Antolatzaileek, dena den, jakinarazi dute “zaintzaren gatazkari” emango diotela zentralitate. “Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu, pertsonen zaintza ez dadila zapalduon bizkar geratu”. Itun edo pakto sozial berri bat eskatu dute. Horretarako, jakinarazi dute etxeko lanetan eta zaintza lanetan dabilzan emakumeekin aliantzak sortu, estutu eta indartuko dituztela. “Etxeko langileen esplotazioarekin aberasten diren enpresa banpiroak seinaltatzeko edo administrazioaren arduragabekeria” salatzeke deia ere egin dute.

Greba egiteko hainbat modu egongo dira emakumeentzat: lantoki eta ikasgeletan greba egitea, mobilizazioetara joatea, zaintzeari uztea eta, hori irudikatzeke, amantala balkoian eskegitzea, besoko morea eta txapa ipintzea... kontsumo greba ere badela gogorarazi dute antolatzaileek. Bestetik, M8ko egunean bertan, gizonei zaintza lanen ardura guztia modu autonomoan hartu eta antolatzea eskatu diete.

### Asanbladak eta ekimenak Deban

Deban Martxoaren 8a antolatzeko asanblada irekiak egiten dabilta dagoeneko.

Emakumeen Nazioarteko Egunerako greba deialdiarekin bat eginez, Udaleko Berdintasun Sailak jakinarazi du aurten ere martxorako ekimen ezberdinak antolatuko direla herrian. Hilaren 10ean (igandea), adibidez, haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izango dira Agirre jauregian, berdintasunaren gaia oinarri hartuta. 17:00etan izango da 3-7 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa, eta 18:00etan hasiko da 7-12 urte bitartekoei zuzendutakoa. Debako kontalariak gidatuko dute hitzordua. Martxoaren 13an (asteazkena), berriz, helduentzako antzerki emanaldia eskainiko du Virginia Imazek (Oihulari Klown), “Modelo clowntrapublicitaria” izenburupean. Ispiluen gelan izango da, 19:30ean.



IBON URKIA

### Zubi or not zubi

Izan ala ez izan. Halaxe idatzi zuen Shakespearek orain lauzpabost mende. *To be or not to be*. Ez dut uste inongo zubirik izango zuenik gogoran, baina esaldi ezaguna egoki datorkio zubi zaharrari, hitz-jokoan hasita. Izan ere, ibaiaz hara eta hona joan-etorrian gabiltzanontzat sekulako nahigabea izaten ari da egunerokoa.

Uztailaren 5eko gau malapartatu hartatik egun asko joan dira eta herrirako pasabidea behingoagatik izatearena oso luze doa. Arazoari konponbidea emateko ardura duten agintariak pazientzia eskean prentsa aurrean agertu diren aldiro. Fidagarritasun oso eskaseko iturriez baliatuz, kontakatuak berba-lapikokerietan. Kaltetu zuzenen artean inork gutxi du berririk. Egunak joan eta egunak etorri, gruatzar erraldoi horiekin Brooklyneko zubiaren erreplika eraikitzen ari ote dira? Erromesaldian Debatik igarotzen direnek ere badute hizketagairik hurrengo etapetarako. Bidean zehar egiten dituzten argazkien artean zubi eroriarena *rending topic* izateko zorian omen dago. Hariak mugitzen hasi zirenerako hainbeste denbora pasatzen ikusita, zirudien baino urrutirago daukagu Foru Aldundia. Ibaiaren alde batetik bestera joateko gutxieneko garraio publikoa erabili ahal izateko horrenbeste gorabehera.

Hitz gutxitan esanda, bagara ala ez gara? Honek guztiak agerian ezer utzi badu ardura duten agintarien jokabide epela izan da.



## HERRIKOAK BERRIKETAN

### Debasket Saskibaloia Kluba

Batzuetan badirudi urteak daramatzagula lanean, emaitzak espero baino askoz azkarrago iritsi baitira. Jada lau taldek osatzen dute kluba (2 talde senior, eta jubenil eta kadete talde bana), baita saski eskola ere. Guztira 75 gazte eta ez hain gazte aritzen gara saskibaloian jokatzen. Jokatzearaz gain, badaude entrenatzaileak, laguntzaileak, mahaiko epaileak... saskibaloia klubaren egitura gero eta osatuagoa da.

Bi urte eta erdiko bizia du gure klubak, emaitzak oso onak izan dira, jokatzeke prest dagoen jende kopuruari begira, herriaren harrerari begira eta, nola ez, kirol emaitzei begira ere bai. Lan handia egin da, ezin uka, eta ezin uka harro egoteko moduko ibilbidea daramagula, baina hamaika erronka ditugu aurretik eta horietako bat klubaren jarraitortasuna da, hau da, etorkizuna bermatzea.

Urte honetan justu-justu sortu dugu

kadeteen taldea eta datorren urteari begira erronka berri bat dugu aurretik: infantil eta kadete taldeak ziurtatzea eta saskibaloia eskola egonkortu eta zabaltea. Helburua zera da: etorkizunean taldeak eta, bide batez, klubak aurrera jarraituko duela bermatzea.

**“Kluba guztiona da,  
herriarena.  
Egiten ari  
garenarekin zuek ere  
harro egotea espero dugu”**

Beste helburu bat, eta datorren urte-erako helburu nagusietako bat, izango da nesken taldeak osatu eta eskaintza zabaltzea. Mutilentzako bezala, emakumeentzako ere atea irekita daude klubean, neskentzako mutilentzako lortu den kirol eskaintzaren

zabalpena da helburu.

Saskibaloia sustatzeko hainbat ekimen egingo ditugu datozen hilabeteetan; lehenengoa, azken bi urteetan gaztetxoentzako antolatutako 3x3 txapelketaren edizio berri bat apirilaren 27an. 2003 eta 2009 urteetan jaiotako gaztetxoek aukera izango dute saskibaloiaz gozatzeko. Data horretatik aurrera, ate irekiak antolatuko dira datorren denboraldirako taldeak antolatzen joateko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eman diguten erakunde, enpresa, komertzio edo norbanakoei, diruz zein animoz edo modu boluntarioan laguntzearen. Denak dira baliagarriak eta garrantzitsuak aurretik dugun erronka handiari aurre egiteko. Kluba guztiona da, herriarena, eta espero dugu zuek ere, gu bezala, harro izatea egiten ari garenarekin. Kluba izan bada eta aurrerantzean ere izango bada, guztion artean izango da.



Ander Salegi

## Martxoaren 10ean egingo da IV. Lasturko Mendi Martxa

Lasturko Mendi Martxaren laugarren edizioa martxoaren 10ean (igande) izango da. Izarraitz Bizirik elkar-teak antolatutako hitzorduak Geoparkeko karstaren bira egiteko aukera eskainiko du. Partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeran: 28 kilometrokoa bata (+1850 metroko desnibelarekin), eta 19,5 kilometrokoa bestea (desnibela:+1350 m.).

Lasturko plazatik abiatuko da mendi martxa, 7:30ean. Izena eman nahi dutenek [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarira jo beharko dute. Izen-ematea otsailaren 24a baino lehen eginez gero, 10 euro ordaindu beharko dira. Otsailaren 25etik martxoaren 7ra bitartean eginez gero, ordea, hamabi.



## Kimetz Etxabe txirrindulari kadetea, Euskadiko Selektioarekin

Otsailaren 9an eta 10ean Pistako Espainiako Kopako bigarren proba jokatu zen Madrilan, Galapagar belodromoan, eta bertan izan zen Kimetz Etxabe kadete debarra, Euskadiko Selektioarekin lehiatzen. Hamalau txirrindularik osatu zuten Euskadiko Selektioaren ordezkariak, eta horietako bat izan zen Kimetz; abiadura probetan aritzen da.

Euskadiko Selektioa nagusitu zen Espainiako Kopako bigarren jardunaldi horretan. Hirugarren proba Valentzian jokatu da, martxoaren amaieran.

Kimetz Etxabe Zumaiako Viveros San Anton txirrindulari taldeko kide da eta azkenaldian kadeteak egindako

ibilbide onaren ordainetan deitu zuen Euskadiko Selektioak Espainiako Kopako bigarren jardunaldian parte hartzerako.

Madrilgo hitzorduaren aurretik, astebete lehenago, hain zuzen ere, Viveros San Anton taldeko kadeteek bigarren postua lortu zuten Gipuzkoako Kopan. Otsailaren 3an jokatu zen Koparen azken ekitaldia, Donostian, eta taldeko kadeteek lan bikaina egin zuten bertan, Etxaberen parte-hartzeari esker, hein handi batean. Bi proba irabazi zituzten: taldeko abiadura eta keirina (Kimetz Etxabe). Kopan bigarren eginda, amaiera bikaina eman zion taldeak pistako denboraldiari.

## Xabi Osa, Miamiko crossfit txapelketako hamar kirolari onenen zerrendan

Miamin jokatuak Wodapalooza nazioarteko crossfit txapelketatik gus-tura itzuli zen Xabi Osa gazte debarra urtarrilean. Diziplina horretan, mundu mailan, desgaitasuna duten hamabost kirolaririk trebeenak bildu

zituen hitzorduak.

Hiru egunetan zehar, guztira zazpi proba ezberdinetan lehiatu zen Osa eta azkenean txapelketako "Top Ten" delako zerrendan 10. postuan sailkatzea lortu zuen.



ONINTZA CARAMANZANA

## 40 urteko krisia? Zuretzat!

Kaixo Berriketazaleoi:

Zuekin desadostasun bat partekatze-  
ra nator. Laster 40 urte beteko ditut eta  
hara zer entzun behar izan dudana: "Uf!  
40 urteko krisia datorkizu". Zer? 40. urte-  
ko krisia? Zer da barizela bezalakoa?  
Bizitzan behin pasa beharreko gaixotasun  
bat? Kuriositatez gaur egungo biblian  
begiratu bat eman dut, San Google-en,  
noski, eta zera dio 40 urteko krisiari  
buruz: gizon kopuruarekin alderatuz,  
emakumeen ehuneko handiago batek  
pairatzen duela, eta norbanakoaren  
heldutasunerako bidean, ez gazte ez  
heldu sentitzen garen momentuari esaten  
omen zaio. Eta, nola ez, San Google-  
ek errezeta piloa dauka "krisi" honi aurre  
egiteko. Baina norbaitek honi buruz idatzi  
izanak edo Google-en agertzeak, benetan  
jasan behar dugun krisia dela esan nahi du?

Nire ustetan norberaren buruan dago  
gakoa, pasatzen den segundo bakoitzean  
zahartzen ari gara; hori horrela da eta hor  
ez dago atzera bueltarik. Nori gustatzen  
zaio gazte izateari lagatzea? Inori ere ez,  
zeren eta gazte izateak konnotazio positi-  
boak besterik ez baititu: arintasun fisi-  
koa, dibertsioa, edozer gauza egiteko gai  
zarela sinestea,... mundua jateko prest.  
Aldiz, heldua izatea konnotazio negati-  
boz bete dugu: lana, errutina, trakestasun-  
a,... hau da, munduak jan gaitu. Baina  
zer da, bada, bizitza azken finean? Mo-  
mentu onez eta txarrez jositako bidea,  
eta momentu horien guztien baturak egi-  
ten gaitu garena eta izango garena. Inoiz  
ez dakigu bide hori noiz bukatuko den,  
beraz, utzi krisiak alde batera eta mo-  
mentuan momentukoa bizi. Okerragoa  
litzateke ez zahartzea!

## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana aho batez onartu du Udalak

Pasa den urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran, Udaltzako aho batez onartu zuen Debako Udaleko 2018-2022 plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

“Euskara Planaren helburu nagusia da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko”, laburbildu du Udalak bere webgunean argitaratutako prentsa oharrean.

Dokumentuak euskarazko jardunak Udalean zer toki duen, eta hori hobetzeko zer pauso eman behar diren azaltzen du. Izan ere, plangintzaldian Udalak bere egingo dituen neurri orokorrak zehazten ditu. “Horretarako, ezinbestekoa da egungo egoera zein den jakitea; hau da, Udalaren hizkuntza erabilaren diagnostikoa egitea. Horrez gain, UEMAren irizpideak jasotzen dira bertan, haiek baitira erreferentzia ibilbide guztian”.

Euskara Plan honen helburu estrategikoen helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatzen ditu:

1.- Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, betiere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

2.- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.

3.- Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.

Debako euskara teknikariak eta UEMAkoek elkarlanean egin dute plana, eta horretarako udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan dute. Osoko bilkurara eraman aurretik, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko txostena jaso zuen. 2022 artean izango du balioa txosten honek, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio.

[www.deba.eus](http://www.deba.eus) webgunetik jaitsi daiteke dokumentu osoa.

## Martxan da Korrika Batzordea



Datorren apirilaren 4an hasiko da 21. Korrika Garesen eta zortzi egun beranduago, hilaren 12an, hurbilduko da Debara. Ibilbide ofizialetik kanpo geratuko garen arren, Korrikaren antolatzaileek Deba eta Itziarko eskualtzaleen laguntza eskatu dute aurturaren eta helburu horrekin sortu da, hain zuzen ere, Korrika Batzordea.

Dagoeneko birritan bildu da batzordea. Otsailaren 14an (osteguna) egin zen lehenbiziko bilera irekia, eta astebera beranduago bigarrena. Korrikaren Gipuzkoako arduradun Xabier Artolak gidatuta, herriko hain-

bat norbanako eta eragile bildu dira batzarretan.

Irekia da taldea eta edonork har dezake parte; alde horretatik, batzordearekin bat egiteko edo ideien bat proposatzeko gonbidapena luzatu nahi du beste behin ere.

Korrikak hasiera-hasieratik aldarrikatu duen bezala, lasterketa erraldoiaren helburuak bete daitezkeen guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak; laguntzeko moduak askotarikoak dira, baina beti izango dira ongi etorriak laguntzaile boluntarioak.

Egin “Klika” eta aukeratu euskara!

## Bigarren Euskaraldia, 2020ko udazkenean

Datorren urtean egingo da Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa. Iazko udazkenean egin zen lehen ariketa, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, eta ekimenak jarraipena izango zuela aurreratu zuten antolatzaileek. Bada, proposamen zehatza lantzen ari dira, baina dagoeneko iragarri dute 2020ko udazkenean egingo dela bigarren Euskaraldia. Bi urterako zikloa izango du, beraz, ekimenak.

Bi parte-hartzaile egongo dira: norbanakoak eta entitateak. Batetik, euskal herritarrei deia egingo zaie, *ahobizi* eta *belarriprest* rolen bitartez hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzeko (ariketa honi dagokionez, ez da aldaketa handirik aurreikusuten 2020ari begira). Bestetik, bigarren edizioko berrikuntza modura, era guztietako entitateek (erakunde publikoak, enpresak, saltokiak, elkarteak...) beraien funtzionamenduan euskararen erabilera areago-



tzeko urrats zehatzak ematea bultzatuko dute. Alegia, 2018an entitateak Euskaraldiaren sustatzaile izan dira soilik, ez parte-hartzaile, eta datorren urterako helburua da pausu bat harago joatea, euren egunerokoan euskara gehiago erabiltzea; horretarako konpromiso zehatzak hartzeko eskatuko zaie.

Bestalde, iazko 220.000 *belarriprest* eta *ahobizien* inguruan egindako azterketaren datuak aurkeztu dituzte. Udan emango dituzte lehen edizioaren eraginari buruzko datu gehiago.



## Aritz Loiolaren argazkiak ikusgai daude Donostian, erakusketa kolektibo batean

Martxoaren 20ra arte ikusgai izango da Ivasfot argazki eskolak bere galerian, Donostian, antolatuta-ko "2008 bider 7" erakusketa. Belaunaldi bereko zazpi ikasle ohiren zazpi serie batzen ditu argazki erakusketa honek eta Aritz Loiola debarrarena da serie horietako bat. Eskolatik duela hamar bat urte pasa-

tako ikasleen lanak bildu dituzte galerian. Gai ezberdinen inguruan gogoeta egiteko aukera du bertan bisitariak. Loiolak "Aitaren azken egunen jarraipena" irudikatu du bere obran.

"2008 bider 7" erakusketaren inguruko informazio gehiagorako: [www.ivasfot.com](http://www.ivasfot.com).



### Usteak, gaztainondoak eta betaurrekoak

Ez da erraza izaten alboko norbait norberaren usteetatik ateratzea eta are zailagoa oraindik uste horiek gizartean ondo erroturiko gaztainondo kirasdunen usaina badakarte.

Ez da erraza izaten adin batetik aurrera norbere alabekin hitz egitea, edo hala diote behintzat adin horretako alaben guraso diren ezagunek, eta are zailagoa elkarrizketa horietatik bi aldeentzat onurazkoa izan daitekeen fruiturik erdiestea.

Ez da erraza izaten emaztearen ikuspuntua ulertzea eta are zailagoa norbera egiaren jabe dela "seguru" dagoenean eta albokoaren hitzak gaztainondotik erortzen diren hosto zimelen parekotzat dituenen.

Eseri, bada, lasai, zure gustuko gaztainondoan magalean, begiratu arnas berriz beterik hedatzen ari zaizkien sustraiei, so egin haien hosto berde eta indartsuei, eta saiatu zure usteen betaurrekoak gaztainondoan itzalpean lagatzen, beraiekin hitz egiten zauden bitartean.

Elkarrizketa amaitzean eta berriro zure emazte, alaba, ama, arreba, lankide, neskalagun, lagun eta abarren aurrean betidaniko betaurrekoak janzten dituzunean, gogoeta egin; aurretik ikusten zenuena eta ondoren ikusten duzuna berdina ote den hausnartuz.

Nik proba egin dut eta argi daukat, aludun gizonak badaudela, zakildun emakumeak existitzen direla, gaeuz kalean bakarrik ibiltzeak beldurra ematen duela, Ez esaten denean Ez esan nahi dela, feminismoa ez dela emakumeen matxismo 4.0 bertsioa eta, batez ere, solasaldi asko ditudala beharrezko gaztainondoek esan nahi dizkidaten kontu guztiak nire betaurrekoetatik ulertzeko.

## Huntza, MIN sarietarako hautagai

MIN sarietarako hautagaien artean dago Huntza taldea, "Xilema" diskoari esker. Union Fonografica Independiente elkarte espainiarrak antolatzen ditu MIN musika independentearen sariak eta 11. edizioa izango da aurtengoa.

Huntza hainbat sariren hautagai da: artistarik onena, urteko abestirik onena, diskorik onena, bideoklip onena, euskarazko diskorik onena eta munduko musika eta fusio diskorik onena. Otsailaren 11n amaitu zen lehiaketaren lehen fasea; bozkatzeko aukera zuen bertan publikoak. Azken erabakia epaimahai espezializatu



batek izango du. Martxoaren 13an banatuko dira sariak, Madrilan.

Sei lagunek osatzen dute Huntza (Josune Arakistain lasturtarra dago tartean). 2016an sortu zuten taldea eta hirugarren diskoa dute "Xilema".

## Zabalik dago animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketara lanak bidaltzeko epea

Ekainaren 19tik 23ra bitartean egingo da Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldiaren lehen edizioa eta dagoeneko zabalik dago animaziozko film laburrak lehiaketara aurkezteko epea.

**Berriketan**-en urtarrileko alean Aitor Oñederra zuzendariak berak jakinarazi zuen bezala, ekainean egingo den nazioarteko lehen lehiaketa honek ordezkatu egingo du azken hamaika urteetan abenduan egin izan den Animadeba Debako Animazio Zinemaldia (Euskal Herriko animazio erakustaldirik zaharrena). Iaz hartutako erabaki baten harira dator aldaketa. Izan ere, ekimenaren antolatzaileek hausnarketa egin zuten iaz eta, jaialdiaren 10. edizioaren ostean, ondorioztatu

zuten "bukatuta" zegoela hasiera-hasieratik Animadeban bultzatu izan den formatua (hau da, animaziozko gortina lehiaketa eta hainbat film labur eta luzeren proiektzioa). "Gauzak horrela, Udalak bi aukera baino ez zituen: mostrarekin amaitu, edo aurre-rapauso bat eman eta nazioarteko zinemaldi bihurtu. Azkenik, bigarrenaren alde egin du apustu", argitu du.

Ekainean egingo den ekitaldiak nazioarteko animaziozko film laburrak sarituko ditu, hortaz; eta lanak aurkezteko epea martxoaren 22ra arte egongo da zabalik. Lehiaketaren oinarriak [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com) atari digitalean kontsulta daitezke. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi mezua [info@animadeba.com](mailto:info@animadeba.com)-helbidera.

## BITOR GARITAONANDIA surflaria



Irudiak: Ander Salegi

## “Kentzen didana baino askoz gehiago ematen dit surfak”

16 urte, batxilergoko ikaslea eta surflari trebea. Aurrez futboleko aritu bazen ere, olatu artean egin da ezagun Bitor Garitaonandia azken urteotan. Hamaika txapelketa irabazi ditu dagoeneko eta 2018an egindakoarekin pozik dagoela aitortzen du. Orain, ordea, apirilean hasiko den denboraldi berrian jarrita dauka begirada. Orain arteko ibilbidea, aurrera begirako erronkak, lehiaketetan ibiltzeak dakarrena, surfaren alderdi polit edota gogorrena... hainbat gai hizpide hartuta, **Berriketan**-ek gazte debarra elkarrizketatu du.

**Urte bikaina izan duzu 2018a, txapelketei dagokienez behintzat. Zer balorazio egiten duzu zuk?**

Urte ona izan da, bai, eta balorazioa oso positiboa da. Helburu guztiak edo ia guztiak lortu ditut eta oso pozik nago.

**Nondik nora ibili zara azken hilabeteotan?**

Ez naiz Euskal Herritik irten, orain ez baitago txapelketarik. Orain denboraldi-aurrean gaudenez, Deba eta Zarautz artean ibili naiz, apirilean hasiko den denboraldirako prestatzen eta entrenatzen.

**2018ko lorpen edo unerik politena zein izan da zuretzat?**

Uztailean, udan, jarraian geratu nintzenezan Gipuzkoako txapeldun sub-16en, txapeldunorde Gipuzkoako OPEN txapelketan eta txapeldun

Euskal Herriko gazte zirkuituko 2. proban. Nahiko maila altua zegoen eta horrek satisfakzio handia eman zidan.

### “Europako Junior zirkuituko lehen proba jokatu da apirilean, Portugalen, eta zirkuitu hori da nire erronka nagusia 2019an”

**Eta unerik gogor edo itsusiena?**  
2018ko ekainean, lehen aldiz Espainiako OPEN txapelketara Galiziarra joan, gaizki surfeatu eta lehenengo txandan kaleratua izan nintzenezan.

**Oker ez bagabiltza, martxoan ekingo diozu denboraldi berriari. Zeintzuk**

**dira aurtengo erronkak? Edo beste modu batean galdetuta, zer eskatzen diozu zuk 2019ari?**

Zehazki apirilean hasiko da denboraldia, Espinhon, Portugalen; bertan Europako Junior (sub-18) zirkuituko lehen proba jokatu da. Nire erronka nagusia zirkuitu europar hori da, 6 probet osatua dagoena: bi proba Portugalen egingo dira, beste bi Frantzia eta beste bi Espainian.

**Besteak beste, jakin dugu 2019ko Euskal Herriko Surf OPEN zirkuituko bi probatan gonbidatu bezala parte hartuko duzula. Orruan eta Mundakan jokatu diren probetan arituko zara. Noiz izango da hori? Eta zer sentsazioekin zaude? Pozik? Urduri?**

Orruakoa azaroan izango da, eta Mundakakoa abenduan. Pozik eta lasai nago eta esperientzia gozatzeko ideiare-

kin. Gonbidatuta nagoela aprobeztatu, proba horietarako beharrezkoak izaten diren puntuak irabazteko presiorik ez daukat eta hori luxu bat da.

**Elkarrizketa hau egiten gabiltzan unean, Deban II. Sorginetxe Big Wave erronka jokatzeko deialdia zabalik dago... zure erronken artean ere badira halako lehiaketak?**

Oraingoz ez da nire erronka. Hori beste mundu bat da, psikologikoki eta fisikoki prestakizun berezia behar du eta ez nago olatu handien esparru horretan. Olatu txiki edo normaletako txapelketetan nago enfokatuta, baina zeinek daki, etorkizunean agian...

**16 urte dituzu eta hainbat sari lortu dituzu dagoeneko. Zelan daramazu txapelketaz txapelketa ibiltzearena?**

Oso ondo, gurasoekin batera, denok elkarrekin ibiltzen gara asteburuak familian igarotzen, talde bat bagina bezala.

**Eta zelan bizi dute hori zure ingurukoek?**

Oso polita da ikustea herriko jendeak nola animatzen zaituen, edo egunkarian ikusi zaituztela esaten dizutenean, eta abar. Oroitzapen polita daukat, adibidez, behin emakume batzuek esan zidatenean, txapelketa batean animoak behar nituenean pentsatzeko beraiengan eta Debako herriarengan, indarrak ateratzeko.

**Surfa kirol garestia dela esan ohi da. Zer iruditzen zaizu zuri?**

Bai, garestia da, baina ematen didan poztasuna, plazera eta zoriontasuna hain handia denez, nire sentsazioa da ez dela garestia.

**Bidaiak, alojamenduak, materiala... baduzu nolabaiteko laguntzarik edo babeslerik?**

Nire babeslerik "potenteena" nire familia izan da, eta da, baina zorionez 2018ko uztailean Bizkaiko Industrysurf enpresarekin hasi ginen elkarlanean. Beraiek Premium markako surf trajeak eta surfeko beste material batzuk ekoizten dituzte eta eman didaten materialarekin babes handia ematen didate. Oso eskertuta nago.

**Txapelketen aurretik entrenamendu edo prestaketa berezirik egiten**

**duzu? Bakarka aritzen zara, ala talde edo aparteko entrenatzailearen bat daukazu?**

Urte guztian zehar entrenatzen naiz, astean lau egunetan Zarautzen taldean, nire entrenatzailearekin, eta gainontzeko egunetan nire kontu joaten naiz gimnasiora edo korrika egitera, beti plan bat jarraituz.

**Zelakoa da zure eguneroko bizitza? Ikasketak, surfa... erraz uztartzen dituzu?**

Ez da erraza, ez, dena uztartzea. Adibidez, orain batxilergoko lehen mailan nago eta institututik hiruretan irten, bazkaldu eta jarraian entrenatzera joaten naiz gaueko bederlatziak edo hamarrak arte. Baina antolaketa eta lan handiarekin ari naiz aurrera ateratzen.

**Noiz hasi zinen surfean?**

6 urterekin, lehen taularekin hobby bezala hasi nintzen, udan gurasoen laguntzarekin. Eta ondoren, benetan, 11-12 urterekin, futbola utzi eta Zarautzen hasi nintzen entrenatzen.

**“Batuetan beldurra pasatzen duzu, olatu handietan edo neguko egun gogorretan, baina oso polita da olatuen artean egotea”**

**Zer ematen dizu surfak? Eta zer kendu?**

Ematen didana kentzen didana baino askoz gehiago da. Oso gauza gutxi kentzen dizkit, denbora da gauza bakarra, agian, baina ematen didan plazera hain handia denez...

**Zer sentitzen duzu olatuen artean? Beldurrik ez?**

Egunak daude, batuetan beldurra pasatzen duzu, olatu handietan, adibidez, edo neguko egun gogorretan, baina normalean itsasoan olatu artean egotea oso gauza polita da.

**Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke, Bitor?**

Ez, egia esan ez, oso elkarrizketa konpletua izan da. Eskerrik asko.



## “Eman eta Hartu” ekimenaren emaitzak jaso ditu Itziarko Auzo Udalak

Orain dela lau urte eratu zenean, antolaketa irekia eta herritarren parte-hartzea azpimarratu zituen Itziarko Auzo Udalak. Gobernantzan eta auzolanean oinarritutako antolaketa jarri zen helburutzat, lehendik zetorren batzar ohiturari eutsiz.

Hortik sortu zen “Eman eta hartu” ize-neko ekimena, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko tresna gisa, erakundearen jardunaz berri emateaz gain. Horrela, aurrekontuei begira jorratu zuen iaz Itziarko Auzo Udalak galdetegi saiakera. Zerbitzu eta eskuduntzei buruzko informazioa zabaldu eta aurrekontuen inbertsio atalerako herritarren proposamenak aintzat hartzeaz gain, egindako ibilbidea neurtu eta ekarpenak jasotzeko balio izan zuen. Batzar orokorrean aurkeztu ziren emaitzak ondoren eta etxez etxe banatu, paperean argitaratuta. Ekimena positibotzat jo, eta aurrerantzean baliatzeko modukoa zela ondorioztatu zen.

Orduan jasotako zenbait proposamen martxan jarri dira dagoeneko, beste batzuek denbora gehiago beharko dute oraindik, baldintza tekniko, ekonomiko eta politikoak kontuan hartuta.

Urte berriarekin abiatu da “Eman eta Hartu” bigarren ariketa, eta Itziarko Auzo Udalaren eremuan bizi eta 16 urtetik gora dituzten guztiei banatu zaizkie inprima-

kiak. 2019ko aurrekontuei dagozkien azalpen eta iradokizunez gain, bestelako gaiak ere badaramatza. Izan ere, maiatzean ditugu hauteskundeak, eta lehenengo legealdia gainditu ondoren aro berriari begira jarri da Itziarko Auzo Udala, antolaketa herritarren parte-hartzeaz indartuz. Hori horrela, hainbat galdera luzatu dira herritarrek ekarpenak egin ditzaten.



Bestalde, espediente berriari hasiera emanez Debako Udalbatzak onartutako “Itziarko Toki Entitate Txikia aldatzea justifikatzen duen txostena” auzo udalaren “aldaketa” dela eta, iritzia emateko aukera eskaini zaie herritarrei galdetegian. Itziarko Auzo Udalak irmoki baztertu du “herritarren borondatearen gaintik alderdikeria hartutako erabakia”. Hala adierazi zuen joan den azaroan Zigor Aizpurua auzo alkatea: “Epe motzeko interesei aurre eginez orain arte egindako lanari eutsi eta etorkizunari itxaropenez

begiratzeko unea da”.

Galdetegiak jaso dira dagoeneko, eta emaitzen laburpenen argitalpena etxez etxe banatuko da. Ondorenean, ohi bezala auzoetako batzarrak antolatuko dira, hausnarketa sustatu eta galdetegiaren emaitzen ondorioak xedatzeko. 2019ko aurrekontuei buruzko azalpenak, auzo udalaren egoera, ibilbidea eta erronkak eta maiatzeko hauteskondei buruz hitz egingo da, besteak beste, batzar hauetan.

Itziarko Auzo Udalaren dinamika zabaldu eta aurrera begira asmoak finkatzeko erabakigarriak dira batzar hauek. Etxetik hurreko batzarrera iristerik ez duenak berdin parte hartu dezake beste auzoetako batzarretan ere.

Hauek dira datak:

-Otsailak 25, astelehena, Arriola+Egia, Perlakua-Sakan. 21.00.

-Otsailak 26, asteartea, Endoia, Auzo lokalean. 21.00.

-Otsailak 28, osteguna, Mardari+Elorrixa, Lauhaizeta Elkartean. 21.00.

-Martxoak 4, astelehena, Itxaspe, Hostalean. 21.00.

-Martxoak 5, asteartea, Lastur-Arbiskoa, Lasturko Tabernan. 21.00.

-Martxoak 7, osteguna, Itziarko kalea, Burugorri. 21.00.

*Itziarko Auzo Udala*

## II. Landaola Sariak banatu dituzte Burugorri ostatuan



Urtarrilaren 31n banatu ziren II. Landaola Sariak Itziarko Burugorri eraikinean, Gipuzkoako landa garapenerako proiektuei errekonozimendua egiteko asmoz.

Lehen edizioan baino sari bat gehiago banatu dute aurten; lehenengo aldiz, Emakumeak Landa Eremuan Saria banatu dute, eta azoketan lanean aritzen diren emakume baserritarrek jaso dute aitortza hori. Sektore horretan aritzen diren emakume guztien ordezkari gisa, Azkoitiko Zumeta baserriko hiru belau-nalditako emakumeek jaso zuten saria ekitaldian.

Gainerako sarituak hauek dira:

-Erakunde pribatuen arloan: Ibarbi Elkartea. Errezil Sagarraren ibilbidea.

-Erakunde publikoen arloan: Orexako Udala. *Orexa Bizirik*.

-Urteetako ibilbideari: Peio Rubio Urbietta (Elgoibarko Txillarre baserriko nekazaria). Debako azken Zoro Ferian ere lehen saria lortu zuen Rubiok bere barazki postuarekin.

Esku pribatuetan sustatutako proiektuen artean, Maitane Aizpuru eta Maite Rodriguez azkoitiarrek sustatutako Itziarko Burugorri kooperatiba ere hautagaien artean zegoen. Saririk gabe geratu zen, ordea.

Landaola, Gipuzkoako landa eremuaren garapeneren alde lan egiten duen elkartea da. Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendari-tzaren laguntzarekin landa ingurunearen iraunkortasuna bermatu eta sustatu asmoz lana egiten du. Landaola, Gipuzkoako sei Landa Garapen Elkartek osatzen dute: Behemendi, Deba-Garaia, Debemen, Goimen, Tolomendi eta Urkome.

## Deba eta Mutriku arteko GI-638 errepidea apirilean itxiko dutela aurreikusten du Foru Aldundiak

Otsailaren 1ean, Mutrikuko Kalbarioko GI-3230 errepidearen zati bat erori zen, 4. kilometroaren parean, euriteek eragindako lurjausi baten ondorioz. Eta errepidea itxi egin behar izan zuten segurtasuna bermatzeko. Bidea, hain zuzen ere, aurretik pitzadurak zeuden lekuan apurtu zen, lurra eta errepidea hondoratuz.

Kalteak erreparatzeko emergentziatzako esku-hartzea egin du bertan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Larrialdi mailako prozedura erabili da egun gutxitan proiektu berri bat egin, eta lanak esleitu ahal izateko. Hainbat aste iraungo dute konpontze lanek eta, aurreikuspenak betetzen badira, martxoaren bukaera edo apirilaren hasierarako egongo dira amai-

tuta, Aldundiko iturriek argitu dutenaren arabera.

Nolanahi ere, lan horiek ez diote eragingo Deba-Mutriku errepidea hobetzeko proiektuari. "Kostako errepidea ixten denerako bukatuta egongo dira Kalbarioko lanak. Itxierak irauten duen bitartean, hau izango da Mutrikura iristeko ordezko bidea, eta funtzio hori betetzeko prest egongo da".

Mutrikuko Udalak azaldutakoaren arabera, Gipuzkoako Bide Azpiegitura Sailak adierazi du GI-638 errepidea apirila aldera guztiz moztuko dela, bospasei hilabetez. Aldundiak lan hauei buruzko informazioa ematen duten esku-orriak banatu ditu Deba eta Mutrikuko biztanleen etxeetara.

## Ke detektagailuak jarri dituzte 75 urtetik gorako bizilagunen etxebizitzetan

Udalerriko 225 etxebizitzetako su-arriskuen azterketa egin eta doako ke detektagailuak ezarri dituzte bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako adinekoen 204 etxebizitzetan.

Debako Udalak jakinarazi du irailan abiatu zuela adinekoen etxebizitzetarako suteen prebentzio kanpaina, herritar horien zein gertuko bizilagunen babesa bermatzeko helburuarekin. Eta horren harira jarri dituzte detektagailuak.

Programa doakoa izan da bizilagunentzat, Udalak bere gain hartu baititu sortu diren kostuak. Guztira 22.796 euro izan dira, eta *A tiempo servicios y prevención* enpresa arduratu da zerbitzuaz.

## Zubi zaharreko lanek aurrera jarraitzen dute

Aurrera jarraitzen dute Deba eta Mutriku batzen dituen zubia desmuntatu eta berreraikitze lanek.

150 urte baino gehiago dituen zubia iazko uztailaren hasieran hasi zen hondoratzen eta uztailaren 5etik itxita dago oinezkoentzako. Foru Aldundiak irailean adierazi zuen oinezkoentzako behin-behineko igarobidea azaroaren erdialdean instalatuko zutela. Gerora, ordea, pasabidea martxoan zabalduko zutela aipatu zuen. Aurreikusitako epeak errespetatuko diren ezin jakin oraingoz.

Egunerokoan zubia itxia egoteak dakartzen kalteen harira, inguruko bizilagunek euren haserrea agertzen jarraitzen dute. Oinezkoentzako jarriko duten pasabideak oztopoak izango dituela eta denentzako irisgarria ez dela izango salatu dute, besteak beste (ikus aldizkari honetako gutunen atala).



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tfnoa.: 943 192 722 • DEBA

## Aita Mari ontziaren inguruan Salvamento Maritimo Humanitariok aurkeztutako adierazpena onartu du Udalak

Pasaiaiko itsas kapitaintzak urtarrilaren 18an ukatu zion Aita Mari ontziari Mediterraneoan salbamendu lanak egiteko baime-na, aurrez Bartzelonako kapitaintzak Open Arms itsasontziarekin egin bezala. Horren aurrean, Salvamento Maritimo Humanitario (SMH) erakundeak udaletara jo du babes eske eta Debara ere iritsi da bere idatzia. Joan den urtarrilaren 31ko osoko bilkuran adierazpena irakurri eta aho batez onartu zuen Debako Udalbatzak.

SMHko kide Amaia Mendozak irakurri zuen adierazpena osoko bilkuran. Idatzian gogoratzen da, adibidez, Migrazioen nazioarteko erakundeak jaurtitako datu ofizialen arabera 14.454 heriotza izan direla Mediterraneoan 2015etik. Aita Mariaren ekimena zibila dela ere nabarmentzen da idatzian, “ehunka partikularren, tokiko, probintzia eta estatuko entitate publiko edo pribatuen elkartasunean oinarrituta, bizi eskubidea beste edozein gaineratik dagoenaren uste osotik sortutako ekimen zibila; sorospen ezari eta giza laguntza aktiboaren erantzuna ematera behartuta dauden botere publikoen ukoaren ondorioz sortutako erantzuna”. Aita Mari ontzia portuan geldirik egotera behartze-ko aitzakiarik ez dagoela dio SMHk bere idatzian.

Egoeraren berri ematen duen lau puntuko adierazpena babestu du Udalak. Itsasoan galdutako laguntza eskaini eta euren eskubideak bermatzea estatuei dagokiela dio idatziak.



Ander Salegi

Egoeraren kudeaketa egoki bat diseinatzea eskatzen zaio Europar Batasunari, itsasoan galdutakoek eskubideak bermatzeko, “porturatzea modu egokian eta aurreikus daitekeen neurrian portu ziur batean egin dadin”. Hori egin bitartean, giza erakundeekin “ahalik eta koordinazio hobereana” bermatu beharko dute Europar Batasuneko estatuek. Laugarren puntuan, legezko eta beharrezko ziurtagiri guztiak dituen Aita Mari itsasontziari, erreskate lanak burutzeko laguntza eskaintzea eskatzen zaie hartarako eskuduntza duten agintariei.

## Santa eskean, urtero legez

Santa Ageda bezpera ospatu dute aurten ere herriko hainbat taldek. Eztarriak sano eta makilak eskuetan, otsailaren 4an (astelehena) santa eskeko koplak abestu zituzten herriko kaleetan, bazkalostean nahiz iluntzean. Eguraldi txarrak ez zituen

etxean geldiarazi koplariak eta ohiko doinuek gogorarazi ziguten otsailean ere badela zer ospatu. Itziarren, santa eskea otsailaren 9an (larunbata) egin zuten, auzoz auzo, etxez etxe, egun osoko planean.



## Kataluniako auzipetu independentistei elkartasuna adierazi diete herritarrek

Otsailaren 12an (asteartea) hasi zen Kataluniako politikari eta gizarte mugimenduetako buruzagi independentisten aurkako epaiketa Espainiako Auzitegi Gorenean. Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Gure Esku Dagoren ekimenez, Deban ere elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek, epaiketa salatu eta auzipetuei elkartasuna adierazteko. Ikurrinak eta Esteladak eskuan, lazo hori handi bat ere jarri zuten plazako eraikinetako batean zintzilik.



## Hil osteko bereizgarri gorridun domina Carmelo Arrizabalagarentzat

Larrialdietako eta Babes Zibileko Merezimenduaren 2018ko dominak jaso dituzten pertsonen izenak jakinarazi zituen Eusko Jaurlaritzak joan den otsailaren 11n, eta hil osteko bereizgarri

gorridun domina Debako Carmelo Arrizabalaga Zabalak jaso du. Ekitaldia otsailaren 16an egin zen, Gasteizen.

Arrizabalaga pasa den azaroaren 1ean hil zen, Sorginetxe inguruan, gal-

duta zegoen Martina Barruetabeña eibartarra bilatzeko lanetan parte hartzen ari zela. Barruetabeña urriaren 24an desagertu zen; azken aldiz Deban ikusi zuten eta oraindik ere ez da agertu.

## Txernobyngo haurrak udan etxean hartzeko harrera familien bila dabilta

Aurtengo udan Ukrainatik etorriko diren adin txikikoak etxean hartzeko prest dauden familien bila ari da Chernobil Elkarteak.

“Osasuntsu hazteko gure laguntza behar dute” lelopean abiatu du elkarteak aurtengo harrera-kanpaina, Txernobyl inguruko haurren osasuna hobetzeko helburuarekin. Programa horri esker, adin txikiko horiek Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako familien artean bi hilabete inguru igarotzeko aukera izango dute; uztailaren hasieratik abuztuaren amaierara arte etorri-

ko dira.

Chernobil Elkarteak 1996. urtean sortu zen eta harrezkero dabil Txernobylgo 1986ko hondamendi nuklearrak kaltetutako haurren aldi baterako harrera bultzatzen.

Osasunerako Mundu Erakundeak dioenez, Txernobylgo haurrek zentral nuklearretik aldentzeko beharra dute, gutxienez urtean 40 egunez, beraien osasuna hobetzeko. Hemen pasatzen dituzten bi hilabeteetan, “janari osasungarria jan eta aire garbia arnastuz”, Ukrainako negua pasa ahal izateko

defentsak berreskuratzeko aukera eman nahi izaten zaie, besteak beste. Iaz, adibidez, 192 haur etorri ziren udan euskal familiekin egotera eta gabonetan ere egin dute egonalditxoa 42 umek.

Harrera programa honetan parte hartu nahi dutenek edo informazio gehiago nahi dutenek 670 419 078 telefono zenbakira deitu dezakete. Era berean, Chernobil Elkartearen facebook orrian eta blogean ere (<https://asociacion-chernobilelkartea.blogspot.com>) aurki daitezke proiektuaren inguruko xehetasun guztiak.

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!



943 191 383

berriketan@zuhatza.com



## Literatur lanak aitona-amonentzat

Urtarrileko *Berriketan* aldizkarian jakinarazi genuen bezala, Arbil elkarteak eta Mendata institutuak elkarlanean antolatutako literatur lehiaketan 58 ikaslek parte hartu dute.

Hiru sari nagusi banatu zituen epai-mahaiak abenduan eta lehen saria lortu zuen idazlana (Marina de Antak sortua) urtarrileko alean argitaratu genuen. Saria jaso duten beste bi lanak dituzue oraingoan irakurgai.



Ander Salegi

### Aitona-amonak

Zenbat oroitzapen ote daude  
zuen bion buruetan  
horietatik hainbat pasata  
heldu edo gaztetxotan  
bilobak jaiotzea  
haiekin jolastea  
garrantzitsuak benetan  
hoietan nola senti zineten  
kontakutako det bertsoetan.

Esan zitzaizuenen zuen  
biloba munduan zela  
hasi zineten prestatu nahian  
aitona-amonen papela  
jatorrak izan behar  
urte guztian zehar  
egin maitasunez mela  
hautxoari eskainiaz beti  
zuen maitasun epela.

Heldu zenean zuen biloba  
pare bat urte izatera  
hasi zineten geroz (e)ta gehi(ag)o  
egunetik egunera  
partxis edo puzzlea  
galtzaile irabazlea  
elkarrekin jolastera  
pozik ibiltzen zineten beti  
jolastuz denok batera.

\*\*Doinua: Iparragirre abila dela

Nagore Zulaika (2. saria)

### Amonarekin ametsetan

June Etxabe (3. saria)

Bazen behin 88 urteko amona bat, Mari Karmen izenekoa. Begi txikiak eta aurpegia zimurrez beteak zeukan. Alarguna zen, bere gizona mendian hil baitzitzaion eta, geroztik, bere 6 katuekin bizi zen. Bere etxeak, kanpotik ikusita, erregina batena ematen zuen, baina barrutik XIV. mendekoa. Denek ezagutzen zuten gure herrian, kaleetatik litxarrerriak banatzen joaten zelako. Oso xelebrea zen nire amona. Oso ondo pasatzen nuen berarekin garai haietan!

Iraileko lehen asteazkena iritsi zen eta amonarekin bazkaltzea tokatzen zitzaidan. Bere etxean sartu eta dena hankaz gora zegoen: argiak piztuta, iturriak irekita, telebistaren aho-tsa oso altu, laba martxan... Aho zabalik gelditu nintzen ikusten ari nintzenarekin:

-Zer gertatzen da hemen?

Ama segituan nire atzetik iritsi zen amonaren etxera eta biok gauzak bere tokian jartzen hasi ginen. Ama ere konturatu zen amona arraro zegoela. Zerbait gertatzen zitzaion!

Azkar-azkar, kotxea hartu eta medikuarengana eramanez genuen. Han, denbora asko itxaroten egon eta gero, amona atera eta zera esan zigun medikuak:

-Kaixo, sentitzen dut, baina Mari Karmenek arazo larri bat dauka: Alzheimerra.

Ama eta ni lur jota joan ginen medikuarenetik. Amak aitari kontatu zion gertatutakoa eta, minutu batzuk geroago, hauxe azaldu zidaten:

-Lore, badakizu amona gaixo dagoela. Bakarrik ezin da bizi. Geure etxean ere ez dago tokirik berarentzat eta zaharren egoitzara eramatea erabaki dugu-, esan zidan amak.

-Ez, zaharren egoitzara ez! Han oso gaizki egongo da bakarrik, gu gabe!-, egin nuen garra-si.

-Lasai, Lore, lagunak egingo ditu eta oso pozik egongo da! Sarritan joango gara bera bisitatzen, zuk nahi duzun guztietan.

Nik nire lagunei kontatu nien, eta beraien-tzako ez zen hainbestearinokoa nire amona zaharren egoitzara eramatea. Martinaren aitona-amonak zaharren egoitzan zeuden, eta nire laguna askotan joaten zen beraiek bisitatzen. Baina nik alboan nahi nuen nire amona.

Handik aurrera, amona nire amets guztietako protagonista izango zen, nire pentsamen-dua... beti nire barruan bueltaka zebilen!

Igande hartan, bera bisitatzen joan ginen. Oker nengibilen. Amona umoretsu eta pozik ikusi genuen. Martinaren aitona-amonarekin eta beste pertsona batzuekin kartetan jolasten harrapatu genuen. Gurasoekin gelditu nintzen igande guztietan bisitatzen, eta batzuetan, Martinarekin ere joango nintzen.

Eta gurasoek hitza bete zidaten, hurrengo igandean ere berriro joan ginelako. Amona asko poztu zen ni ikusi ninduenen, aste osoa nitaz galdezka egon zelako, non nengoen, eta abar. Ni ere asko poztu nintzen bera pozik zegoelako, eta Martina eta ni beraiekin ibili ginen kartetan. Oso ondo pasatu genuen arratsalde hartan.

Hurrengo egunean, dei bat jaso nuen, amonarena, zaharren egoitzatik.

-Kaixo, laztana, zer moduz?-, galdegin zidan.

-Kaixo, amona-, nik erantzun.

-Igandean festa bat egingo dugu eta jolas asko egongo dira. Gonbidatuta zaude.

-Eskerrik asko!-, eta orduan konturatu nintzen zaharren egoitzakoek denetarik egiten zutela etxean bezala sentitzeko.

-Maite zaitut!-, esan zidan, mugikorra laga baino lehen.

-Bai, nik ere maite zaitut!

Igandean, Martina eta ni elkarrekin joan ginen festara, gurasorik gabe. Oso ondo pasatu genuen. Musika zegoen eta dantzan, jolasten, txokolata jaten... egon ginen.

Amona pozik eta, orduan, baita gu ere.



## Eneko Aizpurua idazle lazkaotarrak irabazi du XIII. Tene Mujika Beka

Urtebeteko epea izango du lana egiteko, eta liburu gisa argitaratuko da gero

XIII. Tene Mujika Beka Eneko Aizpurua idazle lazkaotarrak irabazi du, Bidasoa ibaiaren bueltan gertatu diren eta memoria kolektiboan "lekua duten edo izan behar luketen" hainbat istorio kontatzeko proiektuarekin.

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez fikziozko proiektuak sartzin ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean antolatzen duten beka honek.

Aurten aurkeztutako proiektuen artean, Aizpurua saritu du Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Aitor Zuberogoiak osatutako epaimahaiak. Urtebeteko epea izango du orain Aizpurua lana egiteko, eta liburu gisa argitaratuko da. 6.000 euroko dirulaguntza emango diote.

"Bidasoa pasabide naturala da, baina baita bi estatu bereizten dituen muga ere, eta horrek esanahi berezia eman dio historian zehar, era askotako gertakarien lekuko eta kokaleku bihurtu baita", kontatu du idazleak. Horietako hainbat gogoratuko ditu egileak, oinez

hainbat egunez egindako ibilbidean barrena. Adibidez, Guardia Zibilak Intxaurrendoko kuartelean heriotzaraino torturaturiko Mikel Zabalzaren gorpua Endarlatsan agertu zenekoa, edo handik zenbait urtetara ETAK paraje berean Eduardo Lopez polizia bonba batez hil zuenekoa; frankismo garaian pertsonen muga-igaroleku ilegal eta arriskutsua izan zen eta, ahalegin horretan, bertako uretan itota hil omen ziren ehunka lagun, gehienak portugaldarrak; Pio Barojak eta Aitzolek gerra zibilaren hasieran Beratik Lesakara bidean topo egin zutenekoa kontatuko da, baita gerra zibil horrexetan inguru horretan gertatu ziren fusilamendu ugariak ere, edo gerraostean esklabo behartuek egindako herri-lanak oroitu, beste gai askoren artean.

### Hiru nobela beltz azken urteotan

Eneko Aizpurua Lazkaon sortu zen 1976. urtean. Zuzenbidea ikasi zuen, eta gaur egun itzultzailea da Nafarroako Unibertsitate Publikoan.



Orain arte hiru nobela kaleratu ditu, genero beltzekoak gehienbat: "Errauts" (2011), "Herensuge gorriaren urtea" (2013) eta "Lehertu da festa" (2016). Horrez gain, itzulpen literarioak kaleratu ditu, eta bidaia-erreportajeak ere idatzi ditu.

### "12etan bermuta" liburua izango dute hizpide otsaileko Irakurketa Klubean

Ostolaza Udal Liburutegiak irakurketa tailerra antolatu du otsailaren 27rako (asteazkena). Jasone Osoro idazle elgoibartarraren "12etan bermuta" (Elkar, 2013) liburua landuko dute parte-hartzaileek, Asier Serrano idazlearen gidaritzapean. Saioa 19:00etan

izango da, liburutegian bertan, eta ordu eta erdiko iraupena izango du.

Irakurketa Klubean parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, liburutegian: 943 19 25 60 telefonora deituta edo [ostolaza@deba.eus](mailto:ostolaza@deba.eus) helbidera mezua

bidalita. 16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete egitasmoan.

Martxoaren 27rako (asteazkena) dago aurreikusita hurrengo saioa. Eduardo Galianoren "Las palabras andantes" (Siglo XXI, 2015) liburua landuko dute partaideek.

### Martxoaren 17an bukatzen da Cardenas Fundazioak eta Udalak antolatutako literatur lehiaketan lanak aurkezteko epea

Martxoaren 17an amaituko da Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak antolatutako V. literatur lehiaketan parte hartzeko epea. Edizio honetan, San Roke ermitari buruzko

idatziak aurkeztu beharko dira. 100 hitz baino gutxiago izan behar dituzte idatziek eta paperean edo formatu digitaletan aurkeztu daitezke. Bi modalitate daude lehiaketan: euskarazkoa bata eta

gaztelaniazkoa bestea, eta bi sari egongo dira jokoan sail bakoitzean.

Lehiaketaren oinarri guztiak ikusteko eta informazio gehiagorako, kontsultatu [www.deba.eus](http://www.deba.eus) webgunea.

**OTSAILAK 22, OSTIRALA**

-17:00. **"Lapurrak eta iruzurrak"** prebentziorako hitzaldia, Agirre jauregiko ispiluen gelan.  
 -19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoan eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

**OTSAILAK 24, IGANDEA**

-12:30. **Geoparkeko irteera gidatua: Flysch beltza.** Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
 -16:30. **Haurrentzako zinea,** Kultur Elkartearen.

**OTSAILAK 27, ASTEAZKENA**

-19:00. **Irakurketa Kluba,** Ostolaza Udal Liburutegian (Asier Serranok gidatua). **"12etan bermuta"** (Jasone Osoro) liburua izango dute hizpide.

**MARTXOAK 8, OSTIRALA**

-**Emakumeen Nazioarteko Eguna.** Grebara deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak.

**MARTXOAK 10, IGANDEA**

-7:30. **IV. Lasturko Mendi Martxa,** Geoparkeko karstaren bira (ikus 7. orrialdea).  
 -8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz eta Luzarok

antolatuta. Ibilaldi neurtua.

-12:00. **Geoparkeko irteera gidatua: Flysch beltza.** Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

-**Ipuin kontaketak** (berdintasunaren gaia oinarri hartuta), ispiluen gelan. 17:00etan, 3-7 urte bitartekoentzat/18:00etan, 7-12 urte bitartekoentzat. Martxoaren 8aren bueltan antolatutako hitzordua.

**MARTXOAK 11, ASTELEHENA**

-18:30. **Tai Chi tailerra,** Arbil jubilatuen elkartearen.

**MARTXOAK 13, ASTEAZKENA**

-19:00. **Hitzaldia:** **"¿Dieta o ejercicio?"**, Kultur elkartearen (gaztelaniaz). Hizlaria: Jorge Garcia. Debako I. Osasun Jardunaldiaren baitan antolatu dute saioa.  
 -19:30. **Helduentzako antzerki emanaldia:** **"Modelo clowntrapublicitaria"**, Virginia Imazen eskutik. Martxoaren 8aren bueltan antolatutako hitzordua.

**MARTXOAK 17, IGANDEA**

-12:00. **Bisita gidatua:** **"Gotikoaren altxorra, Deban"**. Santa Maria eliza ezagutzeko aukera. Bisita gaztelaniaz egingo da. Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**Lehiaketak**

-**Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak antolatutako V. literatur lehiaketa:** San Roke ermitari buruzko idatziak aurkeztu beharko dira, martxoaren 17a baino lehen. 100 hitz baino gutxiago izan behar dituzte idatziek. Informazioa: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

-**Animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketa.** Ekainean egingo da Animadeba jaialdia eta nazioarteko animaziozko film laburrak sarituko ditu. Martxoaren 22a baino lehen aurkeztu behar dira lanak (ikus 9. orrialdea).

-**Ziriako Andonegi mikroipuin lehiaketa:** Mutrikuko Udalak antolatu duen lehiaketa edonork parte hartu dezake. Gai librean duten euskaraz idatzitako 100 hitzeko nahi beste idazlan bidali daitezke, apirilaren 8a baino lehen. Informazioa: [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus).

-**XI. Elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketa.** Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuarekin, hiru modalitate antolatu dira, partaideen adinaren arabera: ipuina ilustratu, ilustrazioa ipuin bilakatu eta komikia edo bineta sortu. Lanak apirilaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazioa: [www.elkar.eus](http://www.elkar.eus).

**KZguneko ikastaroak**

-KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du otsailean eta goizez arituko da martxoan. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: ofimatika, dropbox, irudi edo bideoen tratamendua... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus).

**\*\*Udaleko Jai Batzordeak antolatutako behin-behineko egitaraua da. Baliteke aldaketak izatea azken orduan.**

**INAUTERIAK 2019**

<p><b>Martxoak 1, ostirala</b>                  -17:00. <b>Haurrentzako jokoak,</b> Zuhatza Kolore Anitzen eskutik.                  -22:00. <b>Bakarrizketa:</b> <b>"Super-viviendo"</b> (Asier Hormaza).</p> <p><b>Martxoak 2, larunbata</b></p>	<p>Egunean zehar, mozorro lehiaketa (taldeka eta banaka).                  -13:00. <b>Debako Musika</b> Bandaren kalejira.                  -17:30. <b>Enbolatuak eta poniak</b> haurrentzat (Debadarrak).                  -20:00. <b>Akelarre txaranga.</b></p>	<p>-20:30. <b>Mozorro lehiaketaren sari banaketa,</b> Foruen plazan.</p> <p><b>Martxoak 5, asteartea</b>                  -17:00. <b>Mozorro show-a</b> eta txokolatada. <b>Gaztelekuak</b> antolatuta.</p>
--	---	---

 <p><b>ZAINTZAKO BOTIKA</b>                  Egunez, 09:00etatik 22:00etara</p> <p>Zalduegi: <b>martxoak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.</b></p> <p>Burgoa Zuazo: <b>otsailak 25, 26, 27, 28.</b>  <b>martxoak 15, 16, 17.</b></p> <p>22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)</p>	<p><b>DEBAKO BOTIKAK</b></p> <p><b>ZALDUEGI: 669 262 201</b>  <b>BURGOA ZUAZO: 667 338 890</b></p> <p>Larunbat goizetan beti bat irekita:</p> <p>ZALDUEGI: martxoak 2 eta 9                  BURGOA ZUAZO: otsailak 23 / martxoak 16</p> <p><b>9:30 - 13:00</b></p>
---	---

 <p><b>Uzuri</b>                  optika audio  <a href="http://www.uzurioptika.com">www.uzurioptika.com</a></p>	<p><b>ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN</b></p>  <p>Ostolaza, 7                  20820 DEBA                  Tel: 943192192</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">RPS: 183/12</p>
---	---



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasagarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615

**DEBA**

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel-faxo: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: [hazirik@gmail.com](mailto:hazirik@gmail.com)

**k**  
**kutxabank**

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**LIGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komitadaren administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**Taxi Alain Deba**

LIZ-ZK.: 3

[www.alain.taxideba.eus](http://www.alain.taxideba.eus)

636 135 008  
[alain@taxideba.eus](mailto:alain@taxideba.eus)



**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049  
NIVEL 2



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



# MARTXAN DA KORRIKA BATZORDEA!

Adi hurrengo deialdiei!  
Zure zain gaude!

## Inauterietan irteteko prest zaude?

Atera argazkiak,  
bidali  
eta gustura  
kaleratuko ditugu  
Berriketan-en!

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
632 04 33 22

